

« Kimu » -ren eragina eta inpaktua

Amaia

2015-2016

Egitaraua :

A / “Kimu” aitzin

**nire sorkuntza gogoak : beti haurrei zuzenduak...*

**nire lehen haur ikusgarriak*

B / “Kimu” –k eskainitakoa

**haur festibalak eta ikusgarriak*

**formakuntzak*

C / “Kimu” ondoren

A / “Kimu” aitzin

** nire sorkuntza gogoak : beti haurrei zuzenduak*

Betidanik haur sorkuntzak erakarri nau, eta betidanik horri lotu naiz... ta hortan aritu : lehenik idatzi moldean, baita gero ikusgarri moldean...

-idatzian :

Frantzian, haur literatura 70. hamarkadan hasi zen, eta sekulako garapena ezagutu du. Gaurregun biziki aberatsa da.

Albumak, ez dira haur liburu sinpleak (ipuin bat marrazkien bidez kondatua...). Egiazko arte ikerketa suposatzen dute, eta zinezko arteari sentsibilizazioak dira. Gehienetan, haur ttipiak, artearekiko biziko duen lehen esperientzia da. Albuma gehienak arte obrak dira.



Nire gogoak jarraituz, idazten eta marrazten hasi nintzen, euskaraz : Panso (2 000), Lodikroko (2 007), Hiru Otso liburuen trilogia (2 009)...

Euskal herrian, haur literatura askoz berantago piztu zen, eta orain da garatzen hasia.

Geroztik, bertze albuma batzu argitaratu ditut : Himalayajavakaputazidiburrina (2 012), Begi Blue (2 012), Altxalili (2 013), Lapiñu (2 014).



Beraz betidanik haurrei mintzatzea interesatu nau.

-ikusgarri moldean :

Ber-mementuan, ene liburu batzuk baliatuak izan ziren haur ikusgarri batzuen sortzeko, ala nola :

-Lodikroko :

Elirale, Pantxika Telleria-ren konpainiaren lehenetako haur sorkuntza izan zen, 2007-an. Ene obra maitaturik, hortan oinarritu zen Pantxika, eta “Lodikroko” ikusgarria sortu zuen : Joxelu Berasategi (aktorea), Jesus Aured (musikaria) eta Celia Thomas (dantzaria)-rekin. Sorkuntza prozesu osoan parte hartu nuen, idazle gisa gomiturik, eta esperientzia biziki aberasgarria izan zen enetako.

Ikusgarri hau berrehun ta berrogei aldiz jokatu izan da geroztik, eta aurten, 2016-an, moldaketa berri bat sortzen du Pantxikak : « *Oa-Huetak* » deituko dena.



-Himalayajavakaputazidiburrina :

Elirale, Pantxika Telleria-ren konpainiaren dantza ikusgarria (2012-an).

Ene albuma dantzara egokitu zuen Pantxikak, eta “H.” ikusgarria sortu zuen : Joxelu Berasategi, Jose Cazaubon, Arantxa Lanne eta Pantxika Telleria, denak dantzariak.

Miarritzeko Dantza Festibalean : “Maitaldian” eskainia izan zen, 2012-ko irailean.

-Hiru Otso :

Théâtre des Chimères konpainiak sortutako ikusgarria, (2013-an), Hervé Estebeteguy taula zuzendaritzan, Txomin Hegi (aktorea), Lierni Fresnedo (aktorea), Jesus Aured eta Arnaud Estor (musikariak).

Ene hiru albumetan oinarritua da ikusgarria : “*Hiru xerri ttipi*”, “*Axeria, ahuntza eta otsoa*”, eta “*Otso Gosetua*”.

Sorkuntza prozesuan ere gomitatu ninduten, eta plazer handia izan zen enetako berritz.



Ondorioz, nire baitan, ikusgarrien sortzeko eta jokatzeko gogo handia piztu zitzaidan.

* nire lehen haur ikusgarriak

Urte horietan zehar, arte ikastaldi zonbaitzu jarraitu nituen, eskuin-ezker, ala nola Dantza eta Gorputza, Azkainen, Clown antzerki ikastaroak, Parisen, Mimoa, Bordalen eta Parisen ...

-Lehen haur ikusgarria sortzeko erabaki nuen, eta adixkide batekin : Josiane Valencia-Aguerre-rekin, lanean hasi ginen.

“Orobil Borobil” asmatu ginuen, haur ttipi-ttipiei zuzenduta, eta 2013-an atera zen.



Ramon Albistur izan zen gure taula zuzendaria.

Paxkal Indo musikariari proposatu genion abenturan sartzea.

Nahiz eta “sasietatik” sortu ta ibili, 50 aldiz eskaini genuen ikusgarri hau, gehienetan haurzaindegietan.

-Ondorioz, **Kiribil** konpainia sortu nuen, 2012.urtean.

Haur arteari dedikatzeko asmoarekin : ikusgarriak sortuz, bultzatuz, euskal haur literatura sustengatuz...

-Gero, bigarren ikusgarri bat sortu genuen : **Baiu**, baina ez genuen lehena bezainbat jokatu.



Haur ikusgarrien munduan sartua nintzen, buru-belarri indarrak ematen nituen horren garatzeko, orduan ene erakaskuntza lana arindu nuen denbora erdiz lan eginez bakarrik, bertze guztia konpainiari dedikatzeko...

Kimu deialdia izan arte...

B / “Kimu” –k eskainitakoa

Kimu deialdiari erantzun nuen, eta hartua izan nintzen.... : enetako aukera paregabea !

*** Haur festibalak eta ikusgarriak**

Kimu-k 2 000 € eskainirik, Oloron-era, Strasbourg-era eta Bordalera bidaiatu ahal izan dut, hainbat haur ikusgarri festibal berezietan :

-Oloron-en, “Espace Jéliotte” :

Hurbil dugun lan talde dinamikoa ezagutu nuen orduan...

***2015-eko azaroaren 6a eta 7a, ostirala eta larunbata :**

-18h00 : « Anywhere » , izotz txontxongilo ikusgarriaren lan eta ikerketaren aurkezpena, Elise Vigneron, Cie Entrouvert. Lan harrigarria, ekai harrigarri batekin : izotza, ura eta lurrina !



-20h30 : « Gretel » ikusgarria, Angélique Friant, Cie Succursale 101.

-22h00 : Paper erakusketa animatua : « Millefeuilles » , Lucasz Areski, Cie Areski.

***2015-eko azaroaren 14a, larunbata :**

-10h00 : « Noir ou blanc » ikusgarria, paper antzerkia, Narguess Majd eta Alain Lecucq, Cie Papier théâtre.

***2015-eko azaroaren 15a, igandea :**

-17h00 : Berritz paper erakusketa animatuaren bisita « Millefeuilles », Lucasz Areski, Cie Areski.

-19h00 : « Hullu » txontxongilo ikusgarria, Cie Blick Théâtre, autismoa gaia hautaturik eta trataturik.

*2016-eko urtarrilaren 28a, ostegun arratsean :

-20h30 :“*Anywhere*”, ikusgarria, izotzezko txontxongiloa, Elise Vigneron, cie Entrouvert.




- “*Sur un Petit Nuage*” festibala, Pessac - Bordalen :

Festibal huntan « KIMU »-koak elkartu ginen, eta hau, biziki aberasgarria eta goxoa zen : elgarren arteko ezagutza egin genuen, baita ere gure gustuak eta iritziak partekatu...

*2015-eko abenduaren 15a, asteartea :

-19h00 : « *Drôles de livres* » erakusketa animazioaren aurkezpena, Catherine Bosch-ekin, zuzenezko performantzia batekin.



-20h00 : « *Soleo* » musika-perkusio ikusgarria, cie : Collectif Braslavie.

*2015-eko abenduaren 16a, asteazkena : « Profesional eta programatzaileen eguna » OARA-
k antolaturik

-10h00-12h30 : 4 sorkuntza proiektuen aurkezpena :

* « *Ravie* », cie Les Lubies : « La chèvre de Mr Seguin », Sandrine Roche-n liburutik inspiratua.



* « *De l'autre côté d'Alice* », cie Hop Hop Hop, Christine Berre.

* « *Minute papillon* », cie Paul les Oiseaux, Valérie Rivière (idazketan : Thimothée de Fontanelle).

* « *Bla bla bla* », cie Encyclopédie de la parole, Emmanuelle Laffont : aktorea bat eta mikro bat.

- 12h45 : « *T'es qui toi ?* », emanaldia, cie Paysages Nomades : 4 ipuin zuzenean kondatuak.



-14h00 : « *L'arche part à 8 heures* », Cie La Petite Fabrique. (gaia : Jainkorik ba ote ?
Idazketa : Ulrich Hub).

-16h00 : « *Les fusées* », Cie La Boîte à Sel.

-20h00 : « *Mystery Magnet* », Miet Warlop (Belgika).

-« Momix » festibala, Kingersheim-Mulhouse-Starsbourg-en :

Hortara, bakarrik, ene alde joan nintzen...baina han bertan, Maika, eta Muriel Euskal-herritik gurutzatu nituen...baita beste konpainiako artista ainitz...

Biziki intensiboa izan zen, baina aberasgarria : zinez frantses haur sorkuntzaren mami erdian nengoela senditu nuen segituan...

Bertan ikusitako hainbat lan aurkezpen, aurten programatuak dira hemen iparraldean...

*2016-ko urtarrilaren 30a, larunbata :

-10h00 : « *Petit penchant* », + 3 urte, *Cie les pieds dans le vent (Belgika)*

-11h00 : « *Les somnambules* », + 8 urte, *Cie les ombres portées (Frantzia)*

- 14h00 : « *Toutouig la la* », 0 à 2 urte, *Chapi chapo et les petites musiques de pluie (Frantzia)*




- 16h00 : « *La mer en pontillés* », + 3 urte, *Bouffou théâtre (Frantzia)*

- 17h00 : « *Coeur cousu* », + 8 urte, *Cie de fil et d'os (Frantzia)*

- 20h00 : « *Au courant* », + 14 urte, *Cie Tristero (Belgika)*

- 21h30 : « *Le trait d'union* », + 11 urte, *Cie Trou de ver Asbl (Belgika)*

- 22h00 : « *Polar Porc* », + 6 urte, *Bouffou théâtre (Frantzia)*



*urtarrilaren 31a, igandea :

- 10h00 : « *Pop up* », + 3 urte, *Cie Teatro Delle Briciole (Italia)*
- 11h00 : « *Elisa et Jean René* », + 6 urte, *Cie des Mutants (Belgika)*
- 14h30 : « *K etc* », + 7 urte, *Cie Rêvages (Frantzia)*
- 16h00 : « *Edredon* », + 1 urte, *Cie les Incomplètes (Québec)*



-Ikusgarriak hemen, iparraldean, urtean zehar :

Gehien bat, Hego Lapurdiko Hiriguneak edo Biarritz Culture-k antolatutakoak ikusi ditut, baina baita ere Hamekak, Baxe Nafarroko herri antzokiak, Xiberukoak...

- “*Lapins frères*” cie Robinson, Hendaian,
- “*Ai ! Ze Haizea !*” cie Eclats, Saran,
- « *Souliers rouges* » cie les nuits claires, Senperen,
- « *Rue de la Bascule* » cie Les Becs verseurs, Ainhoan
- « *Souffre* », cie Aie Aie Aie, Hendaian,
- « *Enchantés* » cie Le fil Rouge Théâtre, Biarritzen eta Hendaian,



- « *Mokofina* » cie Lagunarte, Angelun,
- « *4 sasua* » ZTK proiektua, Baigorri,
- « *Impromptus* » cie le Fil Rouge Théâtre, Donibane Lohitzunen,
- « *Un stoïque soldat de plomb* », cie l'oiseau mouche, Biarritzen,
- « *Etxekoak* » Ander Lipus-en Artedrama, Luhuson,
- « *Xihiko* » cie Elirale, Senperen,
- « *La Cour des Grands* » cie Les Frères Pablot, Biarritzen,
- « *Menpe* » cie Txina Yo, Maulen,
- « *inTarsi* » cie de circo Eia, Luhuson,
- « *Tout Petit Homme* », cie Lenel, Urruñan.....

Beraz, *Kimu* = 43 haur ikusgarri !...7 hilabetez...zinezko murgiltzea !...

Ikusgarri horiek, nahiz eta hurrei zuzenduak diren, argi da deneri zuzenduak direla : emozioneak bizi ditugu, guk denok, betan, publikook, heldu eta gazte.

Kasik ikusgarri guztietan, ene baitan sendi nuen, pizten hasi zitzaidan hazi ttipia, beti ta gehiago handitzen : bai, horixe da egin nahi dudana nik !

Hurrei, eta umeei, emozione amankomun hori biziarazi nahi diet, arte ezenikoak eskaintzen dituen posibilitate guztiak ikertuz.

*** Formakuntzak :**

Kimu-k 2 500 € eskainirik formakuntzarako, Frantzia osoan ibili naiz, gehien bat boza lantzeko.

-Oloron-en, "Espace Jéliotte" :

Txontxongilo eta argi ta itzalak : gutti ezagutzen nuen munduan sartzeko parada izan da aldi guziz.

***2015 -eko azaroaren 7a, larunbata :**

-14h00-17h00 : Paper antzerkiari iniazio formakuntza bat, arratsaldean, Alain Lecucq eta Narguess Majd-ekin.

*2015-eko azaroaren 14 eta 15a, larunbata, eta igandea :

-10h00-18h00 : Elise Vigneron-ekin, (cie Entrouvert), txontxongiloen inguruko lan tailerrak, baita ere itzalak eta proiektzioak.



*2016-ko apirilaren 30a larunbata, eta maiatzaren 1a, igandea :

-10h00-18h00 : Elise Vigneron-ekin, (cie Entrouvert), material edo ekai desberdinekin lan tailerrak : paperra, kartoina, lurra... baita gorputza mugimenduan, Corinne Cella-rekin, cie Rouge Elea.



-Ziburun, “Espeletenian” :

Gorputza eta antzerkia arteko harreman hurbilak sakondu nituen...

**2016-ko otsailaren 5a eta 6a : 9h00-17h00 : “Aktorea eta mugimendua” – Cie des Syrtes – Jean-Philippe Lereboure dantzari, koregrafo eta formatzailearekin.*

**2016-ko maiatzaren 18a, 25a eta 26a : 9h00-17h00 : “Aktorea eta mugimendua” – Cie des Syrtes – Jean-Philippe Lereboure koregrafoarekin..*



-Malérargues-en (Cévennes-etan), “Roy Hart” :

Mundu guztian ezagutua den boza formakuntza berezia eskaintzen da Roy Hart-en. Bi aldiz izana naiz, eta bi alditan, sekulako urratsak eman ditut, mundu osoko artistak gurutzatuz...

**maiatzaren 3-tik 7-ra :*

« Voix Chaos » - Roy Hart eskolan, CAIRH (Center Artistique International Roy Hart), formatzaileak : Yan Magilton eta Saso Vollmaier.





*uztailaren 12-tik 17-ra :

« *Voix et Corps* » - Roy Hart eskolan, CAIRH (Center Artistique International Roy Hart),
formatzaileak : Susan Weins eta Saso Vollmaier.



-« Centre Lafaurie Monbadon”, Langon-en :

Ikastaldi luzea eta sakona izan da, boza eta gorputzaren arteko harreman estua sakonduz, arnasketa ariketa askoren bidez.

**abuztuaren 8-tik 17-ra :*

« Voix et Chant » - Jean Masse eta Jacques Garros, baita François Bitner, pianoan.



Beraz Kimu-ri esker, hainbat ikusgarri eta formakuntza !!!

Baita hainbat harreman berriak, profesionalekin : artistak eta programatzaileak...

C / “Kimu” ondoren

Lehen aldikotz uretara jauzi egin behar delarik, beldurrak eta kezak ditugu.

Ni, oin punttetatik hasi nintzen, haur arte mundura salto egiten : erhi potots azkazala bustitzen...oin osoa sartu arte...ta bigarren oina...

*Azkenean, KIMU proiektuari esker, uretara jauzi egitea **erabakia hartu dut !***

*Kimu-k eskaini didanari esker, **buru-belarri mundu huntan murgildurik**, erabakia hartu ahal izan dut.*

***Ikusgarri guzti horiek ikustean**, nahiz eta hurrei zuzenduak diren, **argi ta garbi gelditzen da deneri zuzenduak direla** : emozioneak bizi dugu, guk denok, betan, publikook, izan heldu, ala gazte. Ez ditugu beti ber-emozionaak bizitzen: batzuetan hurrek irri egingen dute, helduek ez dutelarik batere ez baregarria atxemanen.....eta kontrarioa.....baina denei mintzo dira...*

***Kasik ikusgarri guztietan, ene baitan senditzen nuen, piztu zitzaidan hazi ttipia, beti ta gehiago handitzen zela** : bai, horixe egin nahi dudala nik !*

Hurrei, eta umeei, baita heien burasoei, emozione amankomun hori biziarazi nahi diet, arte ezenikoak eskaintzen dituen posibilitate guztiak ikertuz.

Formakuntza guzti horiek jarraitu ditut, ene proposamenak garatzeko, bikoizteko, biderkatzeko.....: hurrei eskaintzen ahal zaien arte sentsibilizazioak infinitoak baitira...eta arras gutti garatuak oraino....

Ume ttipiek errezibitzeko, eta jasotzeko gaitasun ikaragarria dute ! Eskaintzen zaiena garatu nahi nuke...plazerra eta gogoia hortan baitut : **haur bakoitzak duen artista arima gal ez dezan handitzean !...**

Horretarako umeekin jarraitu nahi dut : euskal haur literaturan idazle-ilustrazaile hasia, ikastoletan andereñoa izana...baina orain, beti umeekin jarraituz, bide artistikoak jorratu nahi ditut.

Gaurregun, 2016-ko irailetik goiti, KIMU-ri esker, erakaskuntza lana utzi dut, eta ene denbora osoa haur arte sorkuntzari dedikatzen diot !

Beraz mila esker KIMU, zabaldu dizkidan ateendako !

Agian orain, Kimu-tik, lili edo lore zonbait sortuko dira !



iz



Gure **Kiribil** konpainiaren sorkuntza berria : **"iz"** - 2016-ko abendurako prest.